

"MARTILLUÉ ETXEAREN" BARNE ARAUDIA

- 1.- Lehentasun nagusia: IRUNGO MENDIZALEAK elkartearen "Martillué etxea" gure **JARDUERA NAGUSIAREKIN, MENDIAREKIN**, zerikusia duten helburuetarako bakarrik erabiliko da.
- 2.- Etxea IRUNGO MENDIZALEAK elkartearena da eta elkarteak erabiltzeko da. Bazkide guztiak behartuta daude Etxea berena balitz bezala zaintzera eta mantentzera, eta utzikeriagatik edo axolagabekeriagatik gerta litekeen edozein narriaduraz arduratuko dira. Klubak Etxea erabiltzeko jarraibideak emango ditu, eta jarraibide horiek Etxean bertan egongo jakingai.
- 3.- Bazkideak eskubidea du instalazioa erabiltzeko eta Etxean egoteko. Bere familiarekin joan daiteke (ezkontidea eta adingabeko seme-alabak), eta beti bete beharko dituzte **ARAUDI** honetan ezarritako arauak.
- 4.- 18 urtetik gorako bazkideak edo bazkide arduradunak lagunduriko adingabeak eskubidea du Etxean egoteko eta hango instalazioak erabiltzeko. Era berean, bazkide ez diren pertsonak ere gonbida ditzake, **gehienez ere hiru lagun, ezkontideaz eta adingabeko seme-alabez aparte**, betiere **ARAUDI** honetan adierazitako arauak betez. Pertsona gehiago joateko, aurretik, baimena eskatu beharko zaio Zuzendaritza Batzordeari.
- 5.- Elkarte honetako bazkidea izanda **BAJA EZ-BORONDATEZKOA** izan bazuen, ezingo du instalazio hori erabili.
- 6.- IRUNGO MENDIZALEAK elkarteko **abonatuak** bazkide batek lagunduta bakarrik erabili ahal izango du "Martillué etxea", edo klubak antolatzen dituen txangoetan.
- 7.- Bazkide orok zaindu egin behar du gonbidatutako senideek eta pertsonen jokabide egokia izan dezaten Etxe/Aterpetxe osoan, batez ere adingabeek. **EZ DIRA MOLESTATU BEHAR GAINERAKO MENDIZALEAK.**
- 8.- Bazkideak **erantzukizun** solidarioa izango du kalteen, hausturen eta abarren aurrean, bai eta gonbidatuen portaerari dagokionez ere. Egonaldian gaizki erabiltzeagatik hondatu diren gauzen zenbatekoa ordainduko du. Arazoren bat izanez gero, Zuzendaritza Batzordeari jakinarazi beharko dio. Bazkide batek irregulartasunak ikusi bai baina salatzen ez baditu, egilea ez ezik bazkidea bera ere haien erruduna izango da.
- 9.- Bazkide bakoitzak gehienez ere **bost gau egin ahal izango ditu jarraian**. Egun gehiagoz luzatu nahi izanez gero, Zuzendaritza Batzordeari jakinarazi beharko dio, plaza liberrik dagoen jakiteko. Gehienez ere beste bost gau jarraian luzatu ahalko da.
- 10.- Toki-erreserbak aurreikusitako eguna baino **hilabete lehenago arte** egin ahalko dira. Klubaren webgunean kontsulta daiteke Etxea libre dagoen. Zuzendaritza Batzordeak erabakiko du Etxea noiz dagoen beteta.
- 11.- Zuzendaritza Batzordeak, aurretik egutegia eginda, egun batzuk izan ditzake etxea erabiltzeko, elkarteak antolatzen dituen irteerak, ikastaroak, kanpalekuak eta abar egiteko.
- 12.- Zuzendaritza Batzordeak ahalmena du elkartekoak ez diren beste talde batzuk Etxea erabil dezaten onartzeko.

- 13.- Erreserba-eskaerak, **lehentasunez**, klubeko idazkaritzara bertaratuta egingo dira (Zokueta Aretoa) , bulegoko egun baliodunetan (astelehen eta asteazkenetan, 18:00etatik 20:00etara). Posta elektronikoaren bidez egiten direnak bulego-ordutegiaren barruan jasoko dira.
- 14.- Bazkideak Etxera sartzeko eta handik irteteko datak adieraziko ditu, **egonaldia egin behar duten pertsona guztien datuak emango ditu**, haietako bakoitza senidea dela edo bazkide ez den bat dela adieraziz. Erabakitako zenbatekoa ordainduko du, eta gelak eta literak esleituko zaizkio (zenbakituta egongo dira), bai eta dagozkion komunak ere.
- 15.- **Giltza** Etxean sartu aurretiko bulegoaren azken egun baliodunetan emango zaio bazkideari, eta Etxetik atera ondorengo bulegoaren lehen egun baliodunetan itzuli beharko du. Giltza galduz gero, 50 euro ordaindu beharko ditu.
- 16.- Etxearen erreserba bertan behera utzi ahal izango da etxean sartu aurreko bulegoaren azken egun baliodunetan. Hori egiten ez badu eta etxea erabiltzen ez badu, egindako ordainketaren % 50 itzuliko zaio (ezinbesteko kasuetan izan ezik; horiek geroago baloratuko dira).
- 17.- **Etxeko sarrera** egonaldiaren lehen gaueko 15: 00etatik aurrera izango da. **Etxetik irtetea** azken gauaren biharamuneko 12: 00ak baino lehen izango da.
- 18.- Etxean zaindari bat egongo da, eta, noiz edo noiz, **aurretik bazkaria edo afaria enkargatu** ahal izango zaio, eta ordaindu egin beharko zaio haren kostua. Eskaera klubeko idazkaritzaren bidez egingo da, giltza ematen den unean. Zaindariak sukaldean utziko du bazkari edo afari prestatua. Bazkidearen ardura da zerbitzatzea eta, erabili ondoren, ontziak eta jaso eta harrikoa egitea.
- 19.- Zaindariak Etxearen egoera egiaztatuko du, bazkide bakoitza handik joaten denean.
- 20.- **Derrigorrezkoa da zapatilak edo txankletak eramatea Etxe barruan erabiltzeko.** Oheek eta lilerak ohegainekoa eta burkoa edukiko dute, baita armairua ere. **Derrigorrezkoa da nork bere lo-zakua eramatea.**
- 21.- Sukaldean, janaria prestatzeko tresnak, oinarritzko baxera, sukaldeko trapuak eta garbiketarako materiala egongo dira. Komunetan, komuneko papera egongo da, baina **TOALLARIK ez**. Etxean/Aterpetxean, oinarritzko botikin bat egongo da.
- 22.- Etxeak **segurtasun-kamerak** dauzka, barruan eta kanpoan.
- 23.- Etxeko ingurunea guztiz **ERRESPETATUKO DUGU**, eta ez dugu eragozpenik, zaratarik eta zikinkeriarik sortuko.
- 24.- Honako hauek izango dira "Martillué etxean" egonaldia egiteko tarifak, pertsona eta gau bakoitzeko:
- Bazkide helduak, 20 €
 - Ezkontideak, 20 €
 - 12 urtetik beherako seme-alabek, 10 €
 - Abonatuak, 25 €
 - Bazkide ez den helduak: 30 €
 - Bazkide ez den 12 urtetik beherakoak: 15 €
- Zuzendaritza Batzordeak tarifa horiek eguneratu egingo ditu aldizka.
- 25.- Elkartearen kuotak ordainduta ez dituen bazkideak edo abonatuak **EZINGO DU** etxea erabili.

- 26.- Etxeko **ISILTASUN** ordutegia **23:00etatik 07:00ak arte** izango da. Norbaitek ordutegi horretan Etxera sartu edo handik atera behar badu, ez du zaratarik egin behar, lo daudenak ez molestatzeko.
- 27.- **DEBEKATUTA** dago:
- Ibilgailuak Etxeko barrutira sartzea
 - Txakurrak edo beste animalia baten bat Etxera sartzea
 - Etxe barruan botekin ibiltzea
 - Barrutian erretzea
 - Logeletan eta egongelan jatea eta edatea
 - Komunetan toallatxoak, konpresak eta abar botatzea
 - Ohegainekoak, burkoak, altzariak eta bestelako tresnak Etxetik kanpo ateratzea
 - Egokitu ez zaizkion logelak eta/edo literak erabiltzea.
 - Isiltasun-ordutegian zarata gogaikarri mota oro eta iskanbila pizten duten eztabaida-mota oro, bereziki, terrazan
 - Literetan oinetakoak kendu gabe etzatea
 - Mendiko edo eskiko botekin sartzea barruti barrura. Hartarako prestatuta dagoen tokian utzi beharko dira, aurretik Etxearen kanpoaldean lokatza garbituta
 - Sobratutako janaria uztea hozkailuan
 - Mahai jakin batez jabetzea eskusiboki. Mahaia erabili ondoren, baldintza egokietan utzi beharko da, gainerako erabiltzaileek erabil dezaten
 - Herriko biztanleak molestatzeko edozein eratan.
- 28.- Logelak, literak, sukaldea, zerbitzuak, altzariak eta gainerako tresnak behar direnerako bakarrik erabiliko dira, ez beste ezertan.
- 29.- Aurreko hori guztia behar ez bezala erabiltzen ez bada edo etxea utzikeria- eta zikinkeria-egoeran uzten bada, bazkide okupatzaile guztien arduraz izango da, azken buruan, azken bazkide okupatzaileari exijituko zaio, ikusitako arazo edo akatsen berri eman ez badu.
- 30.- Etxeko gailu eta tresnetan edozein matxura gertatuz gero, bazkideak berehala abisatu beharko du hartarako jarritako telefonoetara.
- 31.- "Martillué etxetik" joan aurretik, honako **BETEBEHAR** hauek bete beharko dituzte bazkideek:
- Gelak eta literak, ohegainekoak eta burkoak txukun-txukun utzi beharko dituzte
 - Erabili diren baxera, mahai-tresnak, sukaldeko tresnak, mahaiak eta abar garbituta utzi beharko dituzte, eta bakoitza bere lekuan
 - Hozkailua hutsik utziko dute
 - Erabili dituzten komunak eta bainugelak garbi utzi beharko dituzte
 - Geletako zorua eskobatuta utzi beharko dute, eta sukaldeko eta bainugeletakoa, fregonaz garbituta
 - Ate eta leihoak ondo itxita utziko dituzte; sukaldeko suak itzalita eta gasaren giltzak itxita.
 - Zabor eta hondakin guztiak atera beharko dituzte **BIRZIKLATZEKO DAGOZKIEN POLTSETAN**, eta herriko sarreran horretarako jarrita dauden udal-erakundeak botako dituzte.
- 32.- Bazkideren batek aurreko artikuluren bat beteko ez balu, dagozkion neurriak hartuko ditu Zuzendaritza Batzordeak.
- 33.- Araudi honetan azaldu ez diren kasuak **Zuzendaritza Batzordeak** aztertu eta erabakiko ditu. Era berean, **Zuzendaritza Batzordearen** eskumena da Araudi hau interpretatzerakoan sor daitekeen edozein zalantza edo desadostasun erabakitzea.

- 34.- Zuzendaritza Batzordeak ahalmena izango du Araudi hau aldatzeko, Etxean egiturazko aldaketarik egiten bada, edo erabilera-arauak eguneratzeko.
- 35.- Erreklamazio, iradokizun, salaketa eta abarrei buruzko komunikazio oro idatziz egin beharko da, behar bezala identifikatuta, eta Idazkaritzako postontzian utzi, edo posta elektronikoz bidali; eta idatziz erantzungo zaio.
- Idatzia behar bezala identifikatuta ez badago**, kontuan hartuko da zenbaterainoko garrantzia eta oihartzuna duen, baina, logikoa denez, ezingo du erantzunik jaso.

IRUNEN, 2024ko Urtarrilaren 8an

ZUZENDARITZA BATZORDEA

